



Mikel Bujanda

Politika kulturala

Nafarroako Kulturak agintari berriak ditu. Ekaineko hauteskundeen ondotik Tomas Yerro Diputazioko Kulturaren zuzendaritzatik kendu eta haren ordeiz Juan Ramon Corpas izendatu dute. Ustekabekoa izan zen, batik bat Yerro jaunarentzat, sailburu berriak karguan jarraituko zuela esana baitzion. Goragotik etorri zen erabakia, eta azalpena. Migel Sanz diputazioburuak emana: *politikoagoa behar du izan kultura zuzendariak*.

Argibide gehiagorik ez da izan. Baina hermeneuta izan beharrik ez da Sanzen esana interpretatzeko. Aginte politikoaren menpeko eta zerbitzuko izan behar du kulturgintza instituzionalak. Oker ibili da Yerro kulturgintza politika alderdikoiaren morrontzatik libre dagoen esparru autonomoa izan daitekeela inoiz uste izan badu. Huts egin zuen Yerrok hiru urtetan segidan Nafarroako kultur saririk garrantzizkoena, *Bianako Printzearen* izena daramana, nafar txintxoaren katiximaren ortodoxiatik kanpo dabilzanean ematean. Etxenike, Antoñana eta Armendariz, hurrenez hurren, bata bestearen atzetik, Nafarroako kulturaren ordezkari goren izendatzeari ez zion ezezkoa ematen jakin Yerrok, kultur merezimenduen irizpidea kontsiderazio politikoaren gainetik jarri baitzuen, jokabide politikoki okerrean. Alferrrik izan da aurtengoan, konpentsazioa bilatuz, hiru urteren ordaina bakarrean hartu nahi eta saria ultraeskuindar antidemokrata bati ematea. Alvaro D'Ors irakaslea, Opus Deiren loria, izan da kontrapisu gisa erabili nahi izan dutena. Beranduegi zen. Gainera, D'Orsek, bere atzerakoikeria kabernikolan, ez du ematen UPNk nahi lukeen gisako profil modernoa. Ea bada hurrengoan topatzen duten neurriko saridungairik, politikoki egokirik. Beste bidea saria suprimitzea izan liteke. Baina ez dirudi oso politikoa. Bidenabar esanik, Bianako saririk

gabe joan zen, eklipsearen egunean itzalirik Bernardo Estornes Lasa. Ez ziren gutxi gizon honen merezimenduak.

Beste bat izan daiteke, ordea, Yerroren makurra: Iruñerriko harresiak ondare kultural direla-eta oztopo jarri dio Biblioteka Nagusiaren proiektuari. Ez al zuten, bada, hiriko alkateak eta diputazioburuak adostu Santo Domingo aldapapean, harresi zaharrei itsatsirik, hortxe eraikitzea aspaldian agindua duten Biblioteka? Harresiak ukiezinak direla esan zuen Ondarearen Kontseiluak. Yerrok ez zuen ezezko hura baiezko bihur zedin ahalegin handiegirik egin. Ez bederen nahikorik.

Hona, beraz, gure kultur agintari berriak: jendaurrean egin duten lehenbiziko agerraldia, Nafarroako errege-erreginen jauregi izandakoan Moneoren eraikina aurkezteko izan zen. Hortxe zutituko da Iruñeko ikur erakusgarri izateko asmatua den eraikuntza. Zaudete pixka batean donostiarrok, egon geldi bilbotarrok: Iruñea lehia gogoz dator, Iruñeak bere Moneoa izanen du. Hiriko ez, Nafarroako Erresuma zaharreko jauregi enblematiko birrinduarena izan zen errautsen gainean; hiriko tokirik nabarmenean, Nabarrerria zaharrean, hiriaren sorgunean... eta harresi zaharrei itsatsirik.

Literatura politikoa

Alexander Tapia Perurena ez genuen ahantzia. Nola ahanztziko genuen bazenik ere ez baikenekien? Iruñean sortua hiriko alde zaharrean, gizon ikasia, euskaldunberria, olerkaria, estimatzekoa da Joxemiel Bidadorrek prestatu eta *Iruñeko Udalak* argitara eman duen liburua: *Olerki-lanak*. 1925ekoak dira Tapia Perurenaren estraineko lanak, *Euskal Esnalea*-n agertuak. Aitzol, Lauaxeta, Lizardi, Orixeren garaiak ziren. 36ko gudaldiak hil zuen gure gizona kulturalki. Harrezkero —idatzi du Bidadorrek— isiltasun ozenean iraun du 1957an hil zen arteraino. Isilpean jarraitu du gero ere. 1936ko basakeria erdalzaleak eten zuen Alexander Tapiaren ibilbide literarioa. Artearen eta kulturaren beste arloetan Ziga margolariarekin, Rematxa musikaria-

rekin gertatu den bezala. Iruñean inoiz euskaraz idatzi denik ukatu, ezkutatu digu kulturaren historia ofizialak. Gaitzetsi al dute kondenatzaile porrokatuek hainbesteko galera kultural handia eragin zuen 36ko basakeria hura?

Erabilpen instituzionalerako liburua argitara eman du Nafar Gobernuak. Bisita protokolarioetan esku-opari gisa ematekoa. Baina oraingo hau *rara avis* da, egiazko lorebitxia: *Navarra por mil caminos*. Javier Pagola irratilaria da egilea. Nafarroari begirada panoramikoa, holografikoa emanaz, herrialde honetaz jakin beharreko guztia dago bertan bildua, entziklopedia kondentsatu gisa, maitasunez, jakinduriaraz jasorik. Bere zilborrari begira bizi den herrialde honetan, ezin konta ahala gida liburu egin izan dira orain baino lehenago. Gehienak topikoez gainezka, Nafarroaren errealitate paisajistikoa, geografikoa, artistikoa, historikoa... erakusten zizkiguten eta, aldi berean, Nafarroan euskaldunak badirela ezkututzen. Mintzairari aipamen txikienik ez. Oso bestelakoa da Pagolaren lana: lurra-ri hitz egiten utzi dio. Lurra bera, eta lur horren gaineko bizilagun asko euskaraz mintzo dira, eta horrela bildu du Pagolak. Beste era batera esanik, UPNk Nafarroari begiratzekoan duen miopia selektiboa aise gainditzen duen zerumuga zabala dakar liburuak. Noiz edo noiz gertatzen dira halako paradoxak. Gainera Pagolak, liburuaren aurkezpenean, ahal den lasterreneko euskarazko bertsioa eskatu zion Gurrea presidenteordeari. Esfingearena eginez erantzun zion Gurreak.

Politikari baten ezjakintasuna agerian utzi zuelako (geroztik *denen toki* bihurtua dago Sara Mago anderearena); edo Saramago politikoki eta ideologikoki markatua dagoelako, beharbada Portugalek euskaldunontzako duen erakargarritasuna politikoki susmagarri bihurtzen ari delako, Pessoa, Torga, orain Nobel saridun hau, zer ote da? Espainiar ez den, monarkia ez den, bere independentzian bakean bizi den estatu bat bada Penintsulan, Portugal aurkikuntza da, Portugal errealitate kontzienteki ezkutua ez ote da kultura ofizial espainiarrean? Saramago Euskal Herrira hurbildu du Jon Alonsok: literarioki, fisikoki eta afektiboki. Hedabide gehienek txandapasa egin dute,

zer da Nobel saridun bat Bilbon? Kukuak besteren habiarekin egin ohi duen moduan, berekotu egin du gertaera notiziosoa autoritate lokalak, kazetari kriteriorik gabekoaren laguntzarekin, bakoitzak bereari politika informatiboan, baina ororen gainetik *Lisboako Setioaren Historia* liburu politikoa da bere mamiagatik: nazio baten mito fundazionalak, Historiaren faltseamendua eraikuntza nazionalaren zerbitzuan, Historiografia ofizialak, alegia Botereak onetsia, kanonizatua eta egia bakartzat joa duena. Beste zenbaitek, botererik ez baitu, debekatua du bere mitologia sortzea. Kohesio emaille baita mitoa. Gogoetarako iradokitzailea da egiaz. *Nobelagileak irudimenarekin esaten du gezurra, historialariak agiriekin*. Antoñanari aditu nion lehen-goan. Alonsoren prosa efikaza, funtzionala, artifizioz gabekoa da *Lisboako Setioaren Historia*-n politikoa ez den bakarra, eta horretaz ere ez naiz sobera fio.

Euskara eta politika

Euskara politizatua dago, kutsatua. Egin dezagun garbiketa. Garbitu artean zigor dezagun (Zabala Urra soziologoak esana, *Diario de Navarra* 99.11.10 eta 11).

Eliza berria dugu, lagunok. Ignatieff da Jainkoa, Juaristi haren profeta. Eliza Ignatiano honen dogma, axioma eta apotegma bi hitzetan laburbildurik dago: nazionalismoa irrazionala da; nazionalismoa mitomaniakoa da; ez da demokratikoa, patologia da, birusa da... baldin eta nazionalismo horrek *euskal* izenlaguna badarama berarekin. Oso bestelakoa da, noski, nazionalismo inperantearen auzia. Orduan razionaltasuna da, ilustrazioa. Gehiago dena: goitik beherainoko modernitatea da. Jakina, apez ignatianoek deus kritikatzekorik ez dute topatu *ñ* hizkiaren tildea —ikur tipografiko huts eta soil bat— Santa Teresaren beso inkorruptua bailitzan (mila esker, Patxo) erabilia izatean, munduaren aurrean espainiartasuna baieztatzeko eta berresteko espantuka, irrigarriro, ikusi eta aditu dugunean nazionalismo espainiarraren modernitatea. Saindu apokrifo eta gezurrezko ama birjinen agerraldi mirakuluz-

koetan oinarria duen eta orain Guardia Zibilaren funtzionalitatearen aurkikuntza egin duen nazionalismo bera da. Konstituzioaren arauak Mugimendu Nazionalaren printzipio mugiezin sekula artekoak balira bezala hartzen ditue-na, edo, tabu, kritikaezin, Francok oinordekotzan utzi zuen monarkiaren miresle eta lausengari den nazionalismo espainiarra. Hor ez, hornigai horietan deus kritikatzekorik aurkitzen ez duen taldea da Espainia uniforme, pentsamendu bakarreko, akritiko, amnesikoaren zerbitzuan dabilena. Azken urtebetean galtzak bete ezinean lan eta lan aritu dira. Izan ere, hamalau hilabete badira Euskal Herrian gertakari dramatikorik eman ez dela. Horrekin batera ematen ari den prozesuan ekiten ari dena, iniziatiba harturik, euskal abertzaletasuna da. Intelektual organiko ignatianoei umorea ozpindu die ekimena mitomano irrazionalena dela egiaztatzeak. Produkzioa gehitu behar izan dute haien idazkiei aterpe gozo eta oihartzun zabal ematen dieten hedabideetan euskal nazionalismoaren aurkako anatema zabaltzeko. Pentsamenduaren itxura hartu nahi duen propaganda ideologikoaren ekoizle handiak ditugu Nafarroan ere.

Foralismoa feudalismoarekin gero eta nahasiago ageri den lurralde honetan, abertzaletasun politikoa aginte inguruetatik urrundua dutenean, Opus Deiren botere beltzaren luzagarriak erabakigune politiko eta ekonomiko gehienetara iritsiak direnean, Europako eskuinik eskuindarrena agintean dugunean, zertaz arduratu ez balute bezala, behin bai eta hurrengoan berdin euskal abertzaletasunaren aurkako idazki panfletarioak dozenaka ikusi ditugu azken hilabeteotan. Nafarroako euskal abertzaleekin gehien asalaturik dabilenetako bat soziologoa da: Zabala Urra, Jose Ramón. Lehenagotik idatziak ditu ederrak. Azaroaren 10 eta 11n argitara emanikoak paradigmaticoak dira. Ergelki mintzatu da. Ignatieff maisu psikoanalistaren ahotan nazionalismoaren honako definizioa jarri du Zabala Urrak: «nazionalismoak herri baten gertakari naturalak hartu —hizkuntza, lurraldea, kultura, tradizioa eta historia— eta kontaera bihurtzen ditu nortasun nazionala irudikatzeko asmoarekin». Ignatieffek portaera horri nar-

tzizista irizten dio. Baliteke. Baina handiena Zabala Urrak eransten du bere golko eta paperretik: «etnia, hizkuntza, lurraldea, tradizioa eta kultura jardueren bultzatzaile bihurtzen dira, guztiok baitakigu indar primarioak eraginkorrago direla pentsamendua eta arrazoa bezalako indar razionalak baino». Espantuaren handia! Posible ote da horrelakorik?

Zabala Urrak *hizkuntza, kultura eta bestea* gailu primariotzat, irrazionaltzat dauzka. Razionaltasunak hizkuntzari, kulturari, uko egitea eskatzen du. Ez dut ezer asmatu, dena idatzia eta argitara emana dago. Ergelki mintzatu da Zabala. Baina hori ez da okerrena. Zakarki mintzatu da: bere idazkiaren hasieratik amaiera arte, esaldi paralelotan sartu ditu Alemaniako nazien aipamenak eta euskal abertzaletasunarenak; alkoholismoa, eritasun kardiobaskularrak eta nazionalismoaren birusa. Sasi-identifikazioen joko zikin horri beste bat gehitzen dio: inkisidore neofrankista guztiek errepikatu duten salaketa bera tartekatu du Zabalak, ikastolak susmopean jarri nahirik. Gehiago ere bada: nazionalismoaren autismoa eta beste zenbait edergarri erantsi ditu.

Baina Zabalak bere idazkian barrena disimulurik gabe adierazitakoa, biluztasun osoarekin agertu du azken lerroetan: euskara da Nafarroako euskal abertzaleen ardatza. Euskara politizatua dago. Euskara politikak kutsatua du. Garbi dezagun euskara. Uka diezaiogun dirulaguntza publikoa euskarari hau garbitu artean.

Horrekin amaitzen du. Politizatua dagoen bakarra hizkuntza balitz bezala; euskararen erabilpen politikoa egiten duen bakarra euskal abertzaletasuna balitz bezala; Nafarroako nazionalista espainiarrendako euskara euren aurreiritzien, apriorismo ukatzailearen zentzugabekeriaren adierazle ez balitz bezala. Euskarak deseroso jartzen ditu Nafarroako espainiar nazionalistak. Haien tesien kontraesan objektibatua topatzen dute hor. Gauzak errazago lirateke haiendako euskararik ez balego, euskara desagertuko balitz. Hortik datorkie jarrera erasokorra, inkisitoriala, irrazionala, probokatzaila. Pentsamendu razionalik ez dago Zabalarengan. Gorrotoak eragindako arrazoi-

gabekeria dago. Bere ikusmiran dagoena ez da nazionalismoa; *euskal* izenlaguna duen edozer gaitzesten du. Hurrengo galderak berez datoz: errepresioarekin hasiz gero, garbiketa luzatu baitaiteke, zergatik ez jo behin betiko soluziora? zergatik ez euskara debekatu? Garbiketaz ari dela, eta kontu eginik euskararik ez dela euskaldunik gabe, zergatik ez hauek berriz hezi? Garbiketa linguistiko horrek ez al du antzik nazionalismo hegemoniko batzuek boteretik praktikara eraman duten garbiketa etnikoarekin?

Zein gorroto zaharrek, zein beldur berrik, —zein zor handik— eraman dezake inor honelako dialektika okaztagarrian lohitzera? Ez ote da, azken finean, subkontzientean, psikoanalista jakinkotu batena ez, baizik eta Danbo-renearen eta honek famatu dituen trama beltzen zaleago dela?

Oroitzapen bat

Non da, zer izan da Euskararen Kontseilu Aholkuemai-leaz? 1995ean Hiruko Gobernu hark sortua, Otano presidenteak behar zuen izan batzordeburu. Lehen bilera baino lehen, egunkari batek kaleraturikoak —informazioa boterea da—, Suitzako diru kontuen ingurukoak, Otano kargugabetu zuen. Zenbatetan bildu ote zen gero Kontseilua? 1998ko udazkenean azalpenak eskatu zizkieten kontseilukide gehienek Sanz presidenteari irratien baimen banaketarekin gertaturikoaz. Geroztik ez da bilkurarik izan. Gero karguari adio esan zioten erabaki kementsuan. Ekainean hauteskundeak izan dira: hitzerdirik ez da aditu euskararen Nafar Kontseiluaz. Adierazgarria. Baten batek Zabala Urrari jakinarazi behar lioke: bere politikaren ardatz euskara hartua duen alderdi bat baino gehiago dabil hor barrena. Horietakoren batek ardatz nagusi du euskararen ukapen obsesiboa. ♣